

FUNTSEZKO JARDUERAK

Zer egin behar dugu proiektuak benetan funtziona dezan?

Gure proiektua aurrera ateratzeko ez da nahikoa ideia on bat izatea. Hainbat zeregin egin behar ditugu bai ala bai, negozio-ereduak bere horretan jarrai dezan eta bezeroari agintzen dioguna bete dezagun. Jarduera horiek proiektuaren egunerokotasunaosatzen dute, eta hazteko bidea markatzen dute.

Produktuaren edo zerbitzuaren garapena

Gure produktua edo zerbitzua sortzeaz eta martxan jartzeaz hasieratik arduratzen gara. Horrek esan nahi du diseinua pentsatu behar dela, xehetasun bakoitza bezeroak bilatzen duenera egokitu behar dela eta azken emaitzak eskaini nahi dugun kalitate-mailari eusten diola egiaztatu behar dela. Hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak, materialak eta tresnak ere kudeatzen ditugu.

Problemak eta doikuntzak ebatzea

Edozein proiektutan sortzen dira zalantzak, akatsak edo ustekabeak, eta gurea ez da salbuespena. Egoera horiei erantzuten diegu, bai barne-mailan, bai bezeroekin, zer gertatu den aztertzen dugu eta irtenbide errealistak bilatzen ditugu. Iritziak entzuteak eta emaitzak berrikusteak aldaketak sartzen eta pixkanaka hobetzen laguntzen digu.

Kudeaketa digitala eta harremanak

Webgunearen eta sare sozialen bidez gure online presentzia aktibo mantentzen dugu. Hortik, egiten duguna jakinarazten dugu, kontsultak ebatzen ditugu eta bezeroekin, hornitzaileekin edo laguntzaileekin harremanetan egoten gara. Zati hau funtsezkoa da ikusgarritasuna eta gure publikoarekiko lotura ez galtzeko.

Eskuordetu ezin diren jarduerak

Proiektuaren berezko ezagutzarekin zerikusia duen guztia gure esku geratzen da. Produktuaren diseinua, estrategia orokorra, bezeroarekiko harreman zuzena eta erabaki garrantzitsuak negozioaren identitatearen parte dira eta bereizteko aukera ematen digute.